

TRATAMENDUA ESKATZEKO KONTRATUA

Azpeitian, 2026ko otsailaren 24ean.

ELKARTU DIRA:

- Alde batetik, **Nagore Alkorta Elorza**, adinez nagusia –kontratu honen ondorioetarako helbidea: Plaza Nagusia, 5, 20730, Azpeitia (Gipuzkoa), NAN-zenbakia: 72471832M.
- Beste aldetik, **Amaia Zarrabeitia Salterain**, adinez nagusia –kontratu honen ondorioetarako helbidea: Zelai haundi kalea 3, Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil; NAN-zenbakia: 30638431Q.

PARTE HARTZEN DUTE:

- **Nagore Alkorta Elorza** andrea, **Azpeitiko Udalaren** izenean eta hura ordezkatzuz –erakundearen helbidea: Plaza Nagusia, 5, 20730, Azpeitia (Gipuzkoa) jasota dago; IFK: P-2001900F (aurrerantzean, “**TRATAMENDUAREN ARDURADUNA**”).

TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN Azpeitiko alkate gisa dihardu.

- Amaia Zarrabeitia Salterain andrea **ELHUYAR ZUBIZE, SLU**ren izenean eta hura ordezkatzuz –erakundearen helbidea: Zelai haundi kalea 3, Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil; Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan dago inskribatuta, 1965 liburukiko 129. folioan, SS-20890 orrian; IFK: B20775581 – (aurrerantzean, “**TRATAMENDU-ERAGILEA**”).

TRATAMENDU-ERAGILEAREN ahaldun gisa dihardu.

Aurrerantzean, TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI eta TRATAMENDU-ERAGILEARI “**ALDERDIAK**” esango zaie batera, eta haietako bakar bati erreferentzia egiteko “**ALDERDIA**” esango da.

Hemen bertan dauden eta ordezkatzuta dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiek kontratu hau egiteko gaitasuna dute, eta hala aitortzen diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE:

- I. TRATAMENDUAREN ARDURADUNA erakunde bat dela, zeinaren jardunak baitira, besteak beste, administrazio publikoa.

- II. TRATAMENDU-ERAGILEA erakunde bat dela, zeinaren jardunak baitira, bestek beste, aholkularitza eta laguntza eskaintzea erakunde publiko nahiz entitate pribatuei hainbat alorretan (euskara, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, eraldaketa, partaidetza, etab.).
- III. Testuinguru horretan, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK kontratatu duela TRATAMENDU-ERAGILEA bere zerbitzu profesionalak eman diezazkion AZPEITIKO ZUZENDARIEN MAHAIA INDARTU ETA HEZKUNTZA ERRONKEN LANKETARAKO prozesuaren inguruan (aurrerantzean, “**ZERBITZUAK**”).
- IV. TRATAMENDU-ERAGILEAK, ZERBITZUAK ematearen ondorio gisa, datu pertsonal jakin batzuetarako sarbidea izan dezakeela eta tratatu ditzakeela, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN kontura eta haren ardurapean.
- V. 95/46/CE Direktiba indargabetzen duen 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/769 Erregelamenduarekin bat (datu pertsonalen tratamenduari eta haien zirkulazio libreaki dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, aurrerantzean “**DBEO**”) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, “**DBEDBLO**”) ezarritakoarekin bat, bi **ALDERDIEK** sinatzen dutela kontratu hau, zeinak jasotzen baititu

KLAUSULA HAUEK:

1. XEDEA

Kontratu honen xedea da definitzea TRATAMENDU-ERAGILEAK zer kondiziotan tratatuko dituen ZERBITZUAK emateko behar diren datu pertsonalak, DBEOren 28. artikuluan, DBEDBLOn eta datuen babesaren inguruan aplikatu beharreko gainerako arauetan ezartzen denarekin bat.

Tratamendu hori egingo da TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN ardurapeko datuen gainean, zeinak **1. eranskinean** zehazten baitira (aurrerantzean, “**DATU PERTSONALAK**”).

2. TRATAMENDU-ERAGILEAREN BETEBEHARRAK

TRATAMENDU-ERAGILEAK egingo du ZERBITZUETATIK eratorritako DATU PERTSONALEN tratamendua, betiere jarraian azaltzen diren betebeharrak betez:

- a) Mugatuko da TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI ZERBITZUAK emateko beharrezkoak diren jarduerak egitera, zerbitzuak emateko kontratuan ezarritakoaren arabera.

Zehazki, konpromisoa hartzen du DATU PERTSONALAK tratatzeko TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK une oro adierazten dion moduan, eta datu pertsonalak babesteari inguruko legedian jasotzen direnak betez; datu pertsonalak hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde batera transferitzean ere bete beharko ditu eskakizun horiek, betiere ez badago horretara behartuta TRATAMENDU-ERAGILEARI aplikatzen zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera. Azken kasu horretan, TRATAMENDU-ERAGILEAK legezko eskakizun horren berri emango dio tratamenduaren aurretik TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI.

Baldin eta TRATAMENDU-ERAGILEARI iruditzen bazaio TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK ematen dion jarraibideren batek DBEO edota Europar Batasuneko edo estatu kideetako datu-babeseko beste edozein xedapen urratzen duela, berehala adierazi beharko dio hori.

- b) Konpromisoa hartzen du DATU PERTSONALEKIN beste tratamendurik ez egiteko, eta haiek ez aplikatzeko eta erabiltzeko ZERBITZUA emateaz bestelako helburuetarako, ez eta bere helburuetarako ere.
- c) Bermatuko du DATU PERTSONALAK tratatzeko baimendutako pertsonak jasotzen dutela datu pertsonalak babesteko beharrezko den prestakuntza.
- d) TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK egiten dituen tratamendu-jarduera guztiak jasotzen dituen idatzizko erregistro bat izango du, zeinak jaso beharko baititu:
 - TRATAMENDU-ERAGILEAREN eta TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN izena eta harremanetarako datuak.
 - TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN kontura egindako tratamenduen kategoriak.
 - Hala badagokio, hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitutako DATU PERTSONALAK, barne direla hirugarren herrialde edo nazioarteko erakunde horren identifikazioa eta dagozkion bermeen dokumentazioa.
- e) Konpromisoa hartzen du: (i) TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK emandako eta ZERBITZUAK ematean eskuratzen dituen gainerako DATU PERTSONALAK bere kontrol eta zaintzapean gordetzeko; eta (ii) datu pertsonal horiek beste pertsona batzuei ez hedatu, transferitu edo edozein modutan komunikatzeko; ezta datuak gordetzeko bada ere.
- f) Baldin eta DATU PERTSONALAK hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitu behar baditu, dagokion Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen arabera, legezko betebeharrak horren berri emango dio TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI aurrez, non eta zuzenbideak ez duen hori debekatzen, interes publikoko arrazoi garrantzitsuengatik.
- g) TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI laguntza emango dio datu-babesaren inguruko inpaktu-ebaluazioak egiten, hala dagokionean.
- h) TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI laguntza emango dio alde aurreko kontsultak egiten kontrol-agintaritzari, hala dagokionean.
- i) TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN eskura jarriko du bere betebeharrak betetzen dituela erakusteko behar den informazio guztia; TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK edo hark baimentzen duen beste auditore batek ikuskapenak egin ditzan utziko du, eta modu aktiboan lagunduko du ikuskapen horietan.

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA, ahal bada bost (5) egun baliodun lehenago jakinarazita, TRATAMENDU-ERAGILEAREN instalazioetara joan ahalko da, edo, hala badagokio, TRATAMENDU-ERAGILEORDEEN (hurrengo 8 klausulan definitzen direnez) instalazioetara, datuen babesaren inguruko araudia betetzen dela egiaztatzeko egoki iruditzen zaizkion kontrol eta ikuskapenak instalazioetan bertan egiteko. Instalazioetan bertan, urte natural bakoitzeko ikuskapen bat (1) egingo da gehienez, betiere TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK ez badu frogatzen ikuskapenak sarriago egiteko interes legitimorik.

3. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNA

TRATAMENDU-ERAGILEAK ezarriko ditu DBEOren 32. artikuluan ezartzen diren segurtasun-neurriak eta mekanismoak, helburu hauekin:

- a) Tratamendu-sistema eta -zerbitzuek konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko.
- b) Gorabehera fisiko edo teknikoren bat gertatuz gero, DATU PERTSONALEN erabilgarritasuna eta sarbidea azkar leheneratzeko.
- c) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko ezarritako neurri teknikoaren eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko erregulartasunez.
- d) Beharrezkoa izanez gero, datu pertsonalak pseudonimizatzeko eta zifratzeko.

Halaber, TRATAMENDU-ERAGILEAK hartu beharko ditu TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK egindako arrisku-azterketa kontuan izanda haren ustez segurtasuna-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolamenduko neurriak; horretarako, kontuan izan beharko dira teknikaren egoera eta teknika aplikatzeak duen kostua, arriskuei eta babestu beharreko datu pertsonalen izaerari dagokienez. Neurri horiek jasotzen dira kontratu honetako **2. eranskinean**.

Aurrekoa gorabehera, TRATAMENDU-ERAGILEAK bere arrisku-azterketa propioa egin ahalko du, eta TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI proposatu ahal izango dio segurtasun-neurri gehigarriak edo hark proposatutakoez bestelakoak hartzeko, baldin eta neurri horiekin segurtasun-maila egoki bat lortzen bada. Dena den, neurri batzuk edo besteak hartzeari buruzko azken erabakia TRATAMENDUAREN ARDURADUNARENA da.

4. DATU PERTSONALEN SEGURTASUNAREN URRAKETEN BERRI EMATEA

TRATAMENDU-ERAGILEAK jakinaraziko dio TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI, atzerapen bidegaberik gabe, eta betiere gehienez 48 orduko epean, bere ardurapean dauden DATU PERTSONALEN zer segurtasun-urraketa gertatu diren berak dakiela, eta, horrekin batera, gorabehera dokumentatzeko eta komunikatzeko garrantzitsua den informazio guztia emango dio.

TRATAMENDU-ERAGILEAK gutxienez jarraian zehazten den informazioa eman behar du, bere esku badago:

- a) DATU PERTSONALEN segurtasunaren urraketa deskribapena, eta, posible den kasuetan, hauek: ukituak zer kategoriatakoak diren eta gutxi gorabehera zenbat diren, eta ukituen DATU PERTSONALEN erregistroak zer kategoriatakoak diren, eta gutxi gorabehera zenbat diren.
- b) Datuak babesteko ordezkariaren izena eta harremanetarako datuak edota informazio gehiago eman dezakeen bestelako harremanetarako punturen batenak;
- c) DATU PERTSONALEN segurtasuna urratzeak izan ditzakeen ondorioen deskribapena.
- d) DATU PERTSONALEN segurtasunaren urraketa konponbidea emateko hartutako edo proposatutako neurrien deskribapena, eta, hala badagokio, urraketa izan ditzakeen eragin negatiboak arintzeko hartutako neurriena.

Ezinezkoa gertatzen bada informazioa aldi berean ematea, eta ezinezkoa den neurrian, informazioa pixkanaka emango da, atzerapen bidegaberik gabe.

5. KONFIDENTZIALTASUN-BETEBEHARRA

Kontratu honetatik eratortzen den sekretua gordetzeko betebeharrak eta konfidentzialtasun-betebeharrak kontratuaren indarraldian eragingo dio TRATAMENDU-ERAGILEARI, eta luzatu egingo da aplikatu beharreko indarreko legedian aurreikusten diren gehieneko epeetan.

TRATAMENDU-ERAGILEAK bermatuko du DATU PERTSONALAK tratatzeko baimena duten pertsonak berariazko konpromisoa hartuko dutela idatziz konfidentzialtasuna errespetatzeko eta beharrezko segurtasun-neurriak betetzeko, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK behar bezala adierazten dituen neurriak barne.

Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonatzat joko dira, TRATAMENDU-ERAGILEAREKIN edozein lotura juridiko dutela ere, edozein baliabideren bitartez DATU PERTSONALETARAKO sarbidea duten pertsona guztiak.

TRATAMENDU-ERAGILEAK TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN eskura izango du aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharra betetzen duela egiaztatzen duen dokumentazioa.

6. Informazioa emateko betebeharra

Beharrezkoa denean, TRATAMENDU-ERAGILEAK interesdunei eman beharko die, TRATAMENDU-ERAGILEAREN kontura bere DATU PERTSONALAK jasotzen dituen unean, tratamendu horri buruzko informazioa, DBEOn ondorio horietarako ezartzen den edukiarekin eta irismenarekin. Informazio hori nola jasota eta zer formatutan emango den TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREKIN hitzartu beharko da DATU PERTSONALAK jasotzen hasi aurretik.

7. DATU PERTSONALAK ITZULTZEKO EDO SUNTSITZEKO BETEBEHARRA

ZERBITZUAK ematen bukatutakoan, eta TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK ez badu eskatzen DATU PERTSONALAK itzultzeko, TRATAMENDU-ERAGILEAK konpromisoa hartzen du TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK eman dion edo zerbitzuak ematean beste moduren batean eskuratu duen eta DATU PERTSONALAK dituen informazio oro suntsitzeko. Horretarako, euskarrietan sartzen diren DATU PERTSONALAK berreskuraezinak direla bermatzeko neurri fisiko eta logiko egokiak aplikatuko ditu.

DATU PERTSONAL horiek suntsituta daudenean, haiek suntsitu izanaren ziurtagiri bat bidaliko dio TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI, zeinean jasoko baita zer informazio, euskarri fisiko eta dokumentazio suntsitu diren.

TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK DATU PERTSONALAK itzultzeko eskatzen badio TRATAMENDU-ERAGILEARI, DATU PERTSONAL horiek jasotzen dituen informazioa itzuli beharko dio TRATAMENDU-ERAGILEAK TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI edo hark zehazten duen pertsonari.

Horrek esan nahi du DATU PERTSONALAK erabilera arrunteko formatu batean eman beharko dituela, halako moldez non datu pertsonalak itzultzen bukatutakoan TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK ez baititu beharko TRATAMENDU-ERAGILEAREN sistema eta tresnak.

Datu pertsonalak itzultzeko prozesua bukatzen denean, TRATAMENDU-ERAGILEAK suntsitu beharko ditu ekipamendu informatikoetan eta erabilitako gainerako euskarrietan dauden DATU PERTSONALAK.

Aurreko paragrafoetan zehaztutakoa gorabehera, TRATAMENDU-ERAGILEAK DATU PERTSONALAK eta tratatutako informazioa gorde ahal izango ditu, behar bezala blokeatuta, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREKIKO erlaziotik erantzukizunak eratortzeko aukera badago.

DATU PERTSONALAK gordetzea eragin zuten ekintzak preskribatzen direnean, TRATAMENDU-ERAGILEAK aurreko paragrafoetan azaltzen den moduan suntsitu beharko ditu.

8. AZPIKONTRATATZEA

TRATAMENDU-ERAGILEARI baimena ematen zaio hirugarrenekin azpikontratatzeko DATU PERTSONALEN tratamendu hauek berekin dakartzaten prestazioak:

Hori dela eta, TRATAMENDU-ERAGILEAK asmoa badu tratamendu horietakoren bat azpikontratatzeko edo enpresa azpikontratatua aldatzeko, horren berri jakinarazi beharko zaio idatziz TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI: adierazi beharko zaio zer enpresa azpikontratatu nahi den (modu argi eta zehatzean) eta harekin harremanetan jartzeko datuak (aurrerantzean, "**TRATAMENDU-ERAGILEORDEA**"), eta azpikontratazioari uko egiteko aukera eman beharko dio TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI.

Beste edozein prestazio azpikontratatzeko, DATU PERTSONALAK tratatzea badakarte berekin, aldez aurretik baimena eman beharko du, berariaz eta idatziz, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK.

Nolanahi ere, TRATAMENDU-ERAGILEORDEAK ere bete beharko ditu kontratu honetan TRATAMENDU-ERAGILEARENTZAT ezartzen diren betebeharrak eta TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK ematen dituen jarraibideak.

TRATAMENDU-ERAGILEARI dagokio harreman berria arautzea, DBEOren 28. artikuluekin bat etorritik, TRATAMENDU-ERAGILEORDEAK baldintza berberak (jarraibideak, betebeharrak, segurtasun-neurriak...) eta bere eskakizun formal berak betetzeko betebeharra izan dezan, datu pertsonalen tratamendu egokiari eta interesdunen eskubideak bermatzeari dagokienez.

TRATAMENDU-ERAGILEORDEAREN aldetik ez-betetzea gertatzen bada, TRATAMENDU-ERAGILEAK jarraituko du TRATAMENDUAREN ARDURADUNARENTZAT erantzule izaten, betebeharrak betetzeari dagokienez.

9. INTERESDUNEN ESKUBIDEAK

TRATAMENDU-ERAGILEAK TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI lagunduko dio interesdunen eskubideak gauzatzeko (sarbiderako, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunerako eta erabaki indibidualizatu automatizatuen eraginpean ez egoteko eskubideak).

Ondorio horietarako, interesdun batek halako eskaera bat egiten badiu TRATAMENDU-ERAGILEARI, TRATAMENDU-ERAGILEAK, eskaera jaso eta berehala, eta gehienez ere hiru (3) egun naturaleko epean eskaera jasotzen duenetik, eskaera horren berri eman beharko dio TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI, eskaera horri behar bezala erantzun diezaion.

10. TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN BETEBEHARRAK

TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK betebeharrak hauek ditu:

- a) DATU PERTSONALAK ematea TRATAMENDU-ERAGILEARI, kontratu honetan ezartzen denaren arabera.
- b) Aginduko den tratamendutik erator daitezkeen arriskuen azterketa egitea, eta azterketa horretan oinarrituta, TRATAMENDUAREN ERAGILEARI adieraztea ZERBITZUAK emateko zer neurri tekniko eta zer antolaketa-neurri ezarri beharko dituen.
- c) Beharrezkoa bada, TRATAMENDUAREN ERAGILEAK egin beharreko tratamenduko ekintzek datu pertsonalen babesean izango duten eraginaren ebaluazio bat egitea.
- d) Kontrol-agintaritzan egin beharreko aurretiko kontsultak egitea, hala dagokionean.
- e) Zaintzea TRATAMENDUAREN ERAGILEAK tratamenduaren aurretik eta tratamenduan zehar DBEOen ezarritakoak betetzen dituela.
- f) Tratamendua gainbegiratzea, eta ikuskapenak eta auditoretzak egitea.

11. ARDURAK

TRATAMENDUAREN ERAGILEAK konpromisoa hartzen du kontratu honetan eta indarreko legedian ezartzen diren betebeharrak betetzeko, tratamendu-enkargu honi dagokionez.

DBEOren 28.10 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baldin eta TRATAMENDUAREN ERAGILEAK urratzen badu DBEOen ezarritakoa tratamenduaren helburu eta bitartekoak zehaztean, tratamenduaren arduraduntzat joko da tratamendu horri dagokionez.

12. INDARREAN SARTZEA ETA IRAUPENA

Kontratu hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta indarrean izango da TRATAMENDU-ERAGILEAK TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI ZERBITZUAK emateko erlazioa bukatzen den egunera arte, betiere kontratu honetan ezarritako betebeharrak betetzen badira, eta erlazio hori bukatu ostean ALDERDIEI aplika dakizkiekeen betebeharrak gorabehera.

13. HELBIDEA ETA JAKINARAZPENAK

ALDERDIEK helbide hauek ematen dituzte jakinarazpenetarako helbide gisa:

- a) TRATAMENDUAREN ARDURADUNA:
Azpeitiko Udala
Plaza Nagusia, 5, 20730, Azpeitia
Helbide elektronikoa: idazkaritza@azpeitia.eus
Norentzat: Nagore Alkorta Elorza
- b) TRATAMENDU-ERAGILEA:
ELHUYAR ZUBIZE, SLU
Osinalde industrialdea, Zelai Haundi kalea 3
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
Helbide elektronikoa: elhuyar@elhuyar.eus
Norentzat: Amaia Zarrabeitia Salterain

Kontratu hau betez ALDERDIEK elkarri egin behar dizkioten jakinarazpenak baliozkoak izango dira eta erabateko ondorioak izango dituzte, adierazitako helbideetara bidaltzen badira idatziz, halako moldez non frogatu baitaiteke komunikazioa egin zela eta jasotzaileak jaso beharko lukeela.

Jakinarazpenetarako helbideetan egiten diren aldaketak berehala jakinarazi behar zaizkio beste ALDERDIARI, klausula honetan ezarritako arauekin bat. ALDERDI batek aldaketa horien berri jasotzen ez duen arte, jatorrizko datuekin egiten dituen jakinarazpenak ongi eginda daudela joko da.

14. BESTE BATZUK

14.1. Klausulen independentzia

Kontratu honetako klausuletako bat baliogabea edo baliogabetu daitekeena bada, kontratu honetako gainerako klausulak ez dira baliogabetuko, kontratuak indarrean eta eraginkorra izaten jarraituko baitu.

14.2. Izenburuak

Kontratu honetako izenburuak erreferentzia gisa baino ez dira jartzen, eta ez dute mugatzen kontratuaren zentzua eta edukia.

14.3. Kontratu osoa

Kontratu honen aldaketa edo zuzenketak ez dira baliodunak izango ez badira idatziz egiten eta ez baditu sinatzen ALDERDIETAKO bakoitzak.

15. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Kontratuan jasotzen diren klausulek eraenduko dute kontratu hau, eta, gainerakoan, DBEOn eta DBEDBLOn jasotakoak, datu pertsonalen babesaren inguruko gainerako arau osagarriek, Kode Zibilak eta Merkataritzako Kodeak.

ALDERDIEK, beren foruari berariaz uko eginda, adosten dute Donostiako epaitegi eta auzitegien mende jarriko direla kontratu honen ondoriozko edo honekin loturiko edozein eztabaidatarako, barne direla ondorioei, eragin lotesleei, aldaketei eta kontratua desegiteari buruzko eztabaidak.

Hori guztia kontuan dutela, ALDERDIEK bi (2) aletan sinatzen dute kontratu hau, orri guztietan, zeinak paper arruntean eta alde bakarrean inprimatuta baitaude, goiburukoan adierazten diren toki eta datan.

TRATAMENDUAREN ARDURADUNA

TRATAMENDU-ERAGILEA

Nagore Alkorta Elorza andrea
(Azpeitiko Udalaren izenean
eta hura ordezkatzuz)

Amaia Zarrabeitia Salterain andrea
(Elhuyar Zubize SLUren izenean eta hura
ordezkatzuz)

1. ERANSKINA. TRATAMENDUAREN XEDE DIREN DATUAK¹

XEDEA	Diagnostikoa eta aurrera begirako bide-orriaren lanketa
<p>EGIN BEHARREKO TRATAMENDUA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input checked="" type="checkbox"/> Jasotzea <input type="checkbox"/> Erregistratzea <input type="checkbox"/> Egitura sortzea <input type="checkbox"/> Aldaketa <input type="checkbox"/> Gordetzea <input type="checkbox"/> Erauzketa <input checked="" type="checkbox"/> Kontsulta <input type="checkbox"/> Transmisioagatiko komunikazioa <input type="checkbox"/> Hedapena <input type="checkbox"/> Interkonexioa <input type="checkbox"/> Parekatzea <input type="checkbox"/> Muga <input type="checkbox"/> Ezabatzea <input type="checkbox"/> Suntsiketa <input type="checkbox"/> Komunikazioa <input type="checkbox"/> Bestelakoak
<p>TRATAMENDUAREN XEDEA</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Bezeroen kudeaketa, kontabilitatekoa, fiskala eta administratiboa <input type="checkbox"/> Nominen kudeaketa <input type="checkbox"/> Ondare-kaudimenari eta kredituari buruzko informazio-zerbitzuak ematea <input type="checkbox"/> Zerbitzu ekonomikoak, finantzarioak eta aseguruiei buruzkoak <input type="checkbox"/> Publizitatea eta merkataritza-azterketa <input type="checkbox"/> Komunikazio elektronikoen zerbitzuen gidak/katalogoak <input type="checkbox"/> Ziurtatze elektronikoko zerbitzuak ematea <input type="checkbox"/> Asoziazio-, kultura-, aisialdi-, kirol- eta gizarte-jarduerak kudeatzea <input checked="" type="checkbox"/> Hezkuntza <input type="checkbox"/> Osasungintzako kudeaketa eta kontrola <input type="checkbox"/> Segurtasun pribatua <input type="checkbox"/> Bideozaintza <input type="checkbox"/> Giza baliabideak <input type="checkbox"/> Lan-arriskuen prebentzioa <input type="checkbox"/> Diruzko betebeharrak betetzea/ez betetzea <input type="checkbox"/> Profilen azterketa <input type="checkbox"/> Komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematea <input type="checkbox"/> Merkataritza elektronikoa <input type="checkbox"/> Alderdi politiko, sindikatu eta elizetako bazkide eta kideen kudeaketa <input type="checkbox"/> Gizarte-laguntzaren kudeaketa <input type="checkbox"/> Ikerketa epidemiologikoa eta antzeko jarduerak <input type="checkbox"/> Historia klinikoa <input type="checkbox"/> Eraikinetako segurtasuna eta sarbidearen kontrola <input type="checkbox"/> Helburu estatistiko, historiko edo zientifikoak <input checked="" type="checkbox"/> Bestelakoak: Zuzendarien Mahaia indartu eta hezkuntza erronken lanketa partekatua

DATU-MOTA	<input checked="" type="checkbox"/> Identifikazio-datuak
------------------	--

Aukeratu dagozkion aukerak

	<input checked="" type="checkbox"/> Ezaugarri pertsonalak <input type="checkbox"/> Akademiko eta profesionalak <input type="checkbox"/> Merkataritza-informazioa <input checked="" type="checkbox"/> Inguruabar sozialak <input type="checkbox"/> Lanpostuaren xehetasunak <input type="checkbox"/> Merkataritza-informazio ekonomikoa, finantzarioa eta aseguruena <input type="checkbox"/> Ondasun eta zerbitzuen transakzioak <input type="checkbox"/> Datuen kategoria bereziak <input type="checkbox"/> Bestelakoak:.....
INTERESDUN-KATEGORIAK	<input checked="" type="checkbox"/> Enplegatuak <input type="checkbox"/> Bezero eta erabiltzaileak <input type="checkbox"/> Hornitzaileak <input type="checkbox"/> Bazkide eta kideak <input type="checkbox"/> Jabe edo errentariak <input type="checkbox"/> Pazienteak <input type="checkbox"/> Ikasleak <input type="checkbox"/> Harremanetarako pertsonak <input type="checkbox"/> Guraso edo tutoreak <input type="checkbox"/> Legezko ordezkaria <input type="checkbox"/> Eskatzaileak <input type="checkbox"/> Onuradunak <input checked="" type="checkbox"/> Kargu publikoak <input type="checkbox"/> Bestelakoak
MAILAK	<input type="checkbox"/> Publikoa <input type="checkbox"/> Barnekoa <input checked="" type="checkbox"/> Konfidentziala <input type="checkbox"/> Isilpekoa

2. ERANSKINA. SEGURTASUN-NEURRIAK

- a) TRATAMENDU-ERAGILEAREN langileei dagokienez, erabiltzaile bakoitzak bere funtzioak egiteko behar dituen baliabideetara bakarrik izan beharko du sarbidea; mekanismoak ezarri behar dira erabiltzaileek ez dezaten izan behar ez duten baliabideetara sartzeko modurik.
- b) Erabiltzaileen, erabiltzaileen profilen eta bakoitzak baimenduak dituen sarbideen zerrenda eguneratu bat izan beharko du.
- c) TRATAMENDU-ERAGILEAK TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN lokaletatik kanpo egiten dituen gainerako datuen tratamenduei dagokienez, TRATAMENDUAREN ARDURADUNAREN lokaletan egiten diren tratamenduetan aplikatu beharreko segurtasun-neurri berak hartu beharko ditu.
- d) Datuak telekomunikazio-sareen bidez urrunetik atzitzen direnean, lokaletako sarbideen pareko segurtasun-maila bermatzeko moduan egin beharko da hori.

Horretarako, bere langileen taldeko erabiltzaileak zehazki identifikatu eta autentifikatzeko aukera ematen duten mekanismoak izan beharko ditu, eta baimendu gabe datuetara sartzen behin eta berriz saiatzeko aukerak mugatu. Baldin eta sistema hori pasahitzak erabiltzean oinarritzen bada, pasahitzek aldiaren behin iraungitzen direnak izan beharko dute.

- e) Gorabeheren erregistro bat izan beharko du, eta ZERBITZUAK ematean izandako gorabeheren berri eman beharko dio TRATAMENDUAREN ARDURADUNARI.
- f) Telekomunikazio-sareak erabiltzen badira datuak atzitzeko, lokaletatik atzitzeko ezarritako segurtasun-mailaren pareko segurtasun-maila bermatzeko moduan egin beharko da hori.
- g) Ez da probarik egingo DATU PERTSONALEKIN.
- h) Prozedurak ezarriko ditu babes- eta berreskuratze-kopiak egiteko eta suntsitu beharreko dokumentazio eta informazioa suntsitzeko.
- i) Datuen babesaren inguruan indarrean dagoen legediari buruzko trebakuntza eta informazioa emango die langileei.
- j) Tratamenduaren arduradunari adieraziko dio datuak babesteko ordezkaria nor den, edo, halakorik ez badu, segurtasun-neurri horiek gauzatu eta ikuskatzearen ardura zuzena duen pertsona edo pertsonak.
- k) TRATAMENDUAREN ARDURADUNAK eskatzen badio, haren kontura tratatutako datuen datuen eta hark emandako dokumentazioaren konfidentziasuna eta osotasuna bermatzeko hartutako neurriak eta azaltzen dituen memoria bat emango dio.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026FINA0006-Tratamenduaren kontratua/Tratamenduaren kontratua ()